Erref. kodea: LAF-107-838

Izenburua: Gutuneria: ETXAMENDI, Eñaut
[Ikus gainera: 102-264]

# EXKU HIZ... MINTZA BERAZ

Adixkide Jean IRIGARAY, juan den asteko "Herrian" diok « ez dela serios eskualdun alderdi batek erran dezan "gure politika da Europa guziaz erresuma bakar bat egitea" eta denbora berean erraitea, "eman boza nahi duzuenari" ». Presidènt-gai guziek deiadarka Europaren egitea aipu die. Errak beraz hik zoini behar zakon eman boza!

Buruileko "GURE-HERRIA" agerkarian diok Europa zozialista baten alde hizala « Europe socialiste ... <u>seule option</u> où nous ayons quelque espoir de voir vivre les régions ». MITTERRAND bezala mintzo hiz - Behar dakoguia Mitterrand-i eman boza?

Bainan hire kaseta "INDAR-BERRI"-n diozie LECANUET-i emaiteko boza... ~ ez baita zozialista!

Alta "Gure-Herria"-n ez duk dudarik hire ezkertiar idaiez, artikuluaren titulutik beretik hatia hintzan "Pour une régionalisation de gauche" -

Nori eman boza?

1º — MITTERRAND hire idaiako zozialistari?

2º — Ala LECANUET "eskualde ~~libro eta~~ edo "region"-e <u>libro eta beren buruen jabe behar dutenen</u>" alde denari, berak garbiki hitzemaiten dauikun bezala?

3º — Ala DEGAULLE~~-ri~~-i? « Horri esker, Eskualdun guziak... izanen baitire bihotzez eta gogoz Frantses » Michel INCHAUSPÉ-k dion bezala?

Erraguk to, jaun eskolatzailea -

Ala "Gure-Herria"-n hik agertzen dituk

heure idaiak ahurtra bat eskolatu direlakotz bakarrik irakurle han; beste irakurle batzuri mintzo hizalarik aldiz, beste idaia batzu harrotzen.-

Nor da kozinerra hi to? Errak.-

[Batzuekin] ~~gorri~~, [bestekin] ~~zurin~~ ~~zuri~~, ~~keinu faltaz~~ ~~jokolari, bire saltsak hi iduri, tantiki, tantiruri, heure ganat hi tantaka ari...~~

~~Ogiain gañian harrak hori~~ -

Eñaut ETCHAHENDY